upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Consejo de Gobierno / Gobernu Kontseilua
Secretaría / Idazkaritza
24-5-2019

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**ACUERDO POR EL QUE SE MODIFICA LA NORMATIVA REGULADORA DEL PROGRAMA INTERNACIONAL DEL GRADO EN INGENIERÍA EN TECNOLOGÍAS INDUSTRIALES, INGENIERÍA EN TECNOLOGÍAS DE TELECOMUNICACIÓN E INGENIERÍA INFORMÁTICA**

El Consejo de Gobierno, por acuerdo de 23 de mayo de 2016, aprobó el texto por el que se establecen los criterios básicos que han de cumplir los programas docentes internacionales de los estudiaos de grado y máster de la Universidad Pública de Navarra.

En línea con esta normativa, y partiendo de la reglamentación y experiencia adquirida en los Programas Internacionales del Grado en Ingeniería en Tecnologías Industriales, del Grado en Ingeniería en Tecnologías de Telecomunicación y del Grado en Ingeniería Informática ya existentes, la Escuela Técnica Superior de Ingenieros Industriales y de Telecomunicación (ETSIIT) propone una modificación de la normativa de los mencionados Programas Internacionales, que afecta a dos puntos concretos.

En primer lugar, se estima coherente requerir a los estudiantes la participación efectiva en un programa de movilidad internacional de estudios o prácticas para completar con éxito el Programa Internacional, más allá de la mera presentación de una solicitud de participación.

En segundo lugar, a la vista de la evolución de matrícula de estudiantes y de su rendimiento, se estima conveniente modificar el régimen especial de rendimiento académico reajustando el número el número de créditos que los alumnos deben superar al final del primer año en estos Programas Internacionales.

Por todo ello, a propuesta de la Vicerrectora de Enseñanzas y del Vicerrector de Internacionalización, en sesión de 24 de mayo de 2019, previa deliberación de sus miembros, se adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** Modificar el artículo 8.3b) del Programa Internacional del Grado en Tecnologías Industriales, del Grado en Ingeniería en Tecnologías de Telecomunicación y del Grado en Ingeniería Informática de manera que donde dice:

> "Presentarse a una o más convocatorias de movilidad internacional y/o prácticas internacionales. En el caso de serle asignado uno de los destinos, realizar la estancia en la plaza asignada, superando el 80 % de los créditos incluidos en el correspondiente compromiso de estudios".

**ERABAKIA, INDUSTRIA TEKNOLOGIEN INGENIARITZAKO, TELEKOMUNIKAZIO TEKNOLOGIETAKO INGENIARITZAKO ETA INFORMATIKA INGENIARITZAKO GRADUEN NAZIOARTEKO PROGRAMEN ARAUDIA ALDATZEN DUENA**

Gobernu Kontseiluak 2016ko maiatzaren 23ko erabaki baten bidez onetsi zuen *Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gradu eta Master ikasketen nazioarteko irakaskuntza-programek bete behar dituzten oinarrizko irizpideak* ezartzen dituen testua.

Irizpide horiekin bat etorriz eta abiapuntutzat hartuz graduen nazioarteko programen araudiak eta orain arte izandako esperientzia (Industria Teknologien Ingeniaritzako, Telekomunikazio Teknologietako Ingeniaritzako eta Informatika Ingeniaritzako graduei buruzkoa), Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoak (TIIGMET) nazioarteko programa horietan aldaketa batzuk egitea proposatu du. Zehazki, bi alderdi hauek aldatu nahi dira:

Lehenik eta behin, komeni da ikasleei eskatzea, graduaren nazioarteko programa bukatzeko, nazioarteko mugikortasun programaren bateko entitate batera joanda egin ditzatela ikasketak edo praktikak, hau da, ez dadila aski izan besterik gabe halako programa batean parte hartzeko eskaera aurkeztea.

Bigarrenik, kontuan hartuta nolako bilakaera izan duten ikasleen matrikula tasak eta errendimenduak, komeni da errendimendu akademikoaren araubide berezia aldatzea, hau da, ikasleek nazioarteko programen lehenbiziko urtean gainditu beharreko kreditu kopurua aldatzea.

Hori dela eta, hau da Gobernu Kontseiluak, Irakaskuntzako errektoreordeak proposatuta, bere kideek aldez aurretik eztabaida egin eta gero, 2019ko maiatzaren 4an egindako bileran hartu duen

**ERABAKIA**

Lehena.- Industria Teknologien Ingeniaritzako, Telekomunikazio Teknologietako Ingeniaritzako eta Informatika Ingeniaritzako Graduen Nazioarteko Programaren araudiko 8.3. b) artikulua aldatzea, halako moldez non, honela dioen tokian:

> "Nazioarteko mugikortasuneko eta/edo nazioarteko praktiketako deialdi batera edo gehiagotara aurkeztu behar dute. Nazioarteko leku horietako bat esleituz gero, egonaldia esleitutako ikaspostuan egingo dute, eta dagokion ikasketa-konpromisoan bildutako kredituen % 80 gainditu beharko dute".

diga:

"Completar un periodo de movilidad internacional antes de solicitar la expedición del título en el marco de cualquiera de las convocatorias de movilidad ofertadas para estudiantes de la ETSIIT: movilidad académica, prácticas internacionales curriculares o prácticas internacionales extracurriculares. En el caso de que dicha movilidad requiera un compromiso de estudios, superar al menos el 80% de los créditos recogidos en el mismo"

honela esan behar baitu:

"Ikasleek, titulua eman diezaietela eskatu baino lehen, nazioarteko mugikortasuneko egonaldi bat egin behar dute TIIGMETeko ikasleei eskaintzen zaizkien mugikortasuneko programetako edozeinetan: mugikortasun akademikoa, curriculumeko praktikak nazioartean edo curriculumaz kanpoko praktikak nazioartean. Baldin eta mugikortasun programa horretan beharrezkoa bada ikasleek ikasketa-konpromiso bat hartzea, konpromisoan adierazitako kredituen % 80 gainditu behar dute gutxienez.

**Segundo.-** Modificar el artículo 13 letra b) del Programa Internacional del Grado en Tecnologías Industriales, del Grado en Ingeniería en Tecnologías de Telecomunicación y del Grado en Ingeniería Informática de manera que donde dice:

"Haber superado al finalizar el primer año al menos 8 de las 10 asignaturas de su programación docente específica."

diga:

"Haber superado al finalizar el primer año al menos el 60 % de los créditos de su programación docente específica.

**Bigarrena.-** Industria Teknologien Ingeniaritzako, Telekomunikazio Teknologietako Ingeniaritzako eta Informatika Ingeniaritzako Graduen Nazioarteko Programaren araudiko 13. b) artikulua aldatzea, halako moldez non, honela dioen tokian:

"Lehen urtearen amaieran gaindituak izan beharko dituzte, beren irakaskuntza programazio espezifikoko hamar irakasgaietatik zortzi".

honela esan behar baitu:

"Lehenbiziko urtearen bukaeran gaindituak izan behar dituzte irakaskuntza-programazio espezifikoko kredituen % 60 gutxienez".

**Tercero.-** Comunicar el presente Acuerdo a la Vicerrectora de Enseñanzas, al Vicerrector de Internacionalización, a los Centros, al Servicio de Enseñanzas y a la Sección de Internacionalización y Cooperación.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau aditzera ematea Irakaskuntzako errektoreordeari, Nazioartekotze errektoreordeari, ikastegiei, Irakaskuntza Zerbitzuari eta Nazioartekotze eta Lankidetza Atalari.

**Cuarto.-** Ordenar la publicación del siguiente Acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.

**Laugarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.

**Quinto.-** Frente al presente Acuerdo podrá interponerse recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra, conforme a las disposiciones establecidas en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

**Bosgarrena.-** Erabaki honen aurka, zilegi da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea, bi hilabeteko epean, Erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedapenetan ezarritakoarekin bat.

EL PRESIDENTE
KONTSEILUBURUA

Alfonso Carlosena
Rector/Errektorea

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa